

Larraintzarko
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

IKASTURTEA	2019/2020	IRAKASLEA	Amaia Goienetxe
MAILA	DBH 3	ARLOA	Euskal Hizkuntza eta Literatura

HELBURUAK, OINARRIZKO GAITASUNAK, EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa , Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena.


http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

1. ebaluazioa	<p>Gramatika:</p> <ul style="list-style-type: none">• Adjektiboa eta postposizioak.• Aditzaren moldeak. Aditzaren aspektua. • Nominalizazioa. Zenbait aditz berezi.• Indikatiboa: orain, iragana eta baldintzazkoak.• Deklinabidea: kasuak eta mugagabea. <p>Hiztegia: Joera eta gaia atzizkiak .</p> <p>Ortografia: Bat / batzuk, Bera / berdina eta araziren idazkera.</p> <p>Irakurmena, entzumena eta mintzamena: gaiak 1, 2,3 eta 4.</p> <p>Idazmena: gidoia, gertakari historikoa eta dekalogoia.</p> <p>Literatura: lore jokoak eta Bertsolaritza.</p>
---------------	---

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

2.ebaluazioa	<p>Gramatika:</p> <p>Ahalera. Perpauseko osagaien ordena. Juntadura perpausak, perpaus osagarriak, erlatibozkoak eta ondoriozkoak.</p> <p>Hiztegia: Hitzen irudizko esanahia.</p> <p>Ortografia: Siglak.</p> <p>Irakurmena, entzumena eta mintzamena: gaiak 5, 6, 7 eta 8.</p> <p>Idazmena: Albistea eta eskema.</p> <p>Literatura: Sarako eskola, euskalki literarioak eta euskal ohitura eleberria.</p>
--------------	---



EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

3.ebaluazioa

Gramatika:

Subjuntiboa eta agintera.
Helburuzkoak, denborazkoak,
moduzkoak, kausazkoak,
baldintzazkoak, konparaziozkoak eta
kontzesio perpausak.

Irakurmena, entzumena eta mintzamena:
gaiak 9, 10, 11 eta 12.

**Idazmena: Erreportajea, akta eta
eskabide-orria.**

Literatura: Narrazio labur modernoa,
literatura-teknika berriak.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

1.- Landuko ditugun arloak eta ebaluazio bakoitzeko nota

Arloak	%	Jarduerak
Jarrera	% 15	Lan giroa. Euskaraz mintzatzea irakaslearekin eta ikasleekin. Etxeko lan modura eskaturiko ariketak eta koadernoak. Errespetua.
Idatzizko zein ahozko testuen sorkuntza	% 20	- Testu-mota bat klasean landu eta idazlana edota ahozko aurkezpena egin. - Testuen sorkuntzarako mikroproiektuak.
Idatzizko zein ahozko testuen ulermena	% 15	- Irakurmena edota entzumena neurtzeko eta garatzeko ariketak. Azterketa egin.
	% 15	- Irakurketa liburuak: Lanak edota azterketak.
Azterketak: Gramatika, literatura, hiztegia, ortografia	% 35	- Hiruhilekoan ikasitako edukien gaineko azterketa bakarra. - Munta ertaineko proiektu desberdinak.

2- Oharrak


Nahitaezkoa izanen da jarrera arloa gainditzea ebaluazioa gainditzeko.

Ebaluazioan, testu bakar bat ez sortzekotan, edukien balioa % 60 izango da.

Testuen ulermenean, sorketan eta azterketetan gutxienez 4 atera behar da. Hortik beherako notak **0 bihurtuko dira** batezbestekoa kalkulatu baino lehen.

Irakurketa liburuak: Liburutegi ibiltari bat sortu dugu. Liburuek puntuazio konkretu bat dute tamaina, zailtasuna eta gaia kontuan hartuta. Ikasle bakoitzak aukeratuko ditu irakurriko dituen liburuak, baina ebaluazio bakoitzean 7 puntu gutxienez lortu behar ditu, eta kurtsoaren bukaerarako 30 puntu irakurketa-liburuaz azpiatala gainditzeko. **Aipatutako 30 puntu horiek ez lortzekotan**, ebaluazio guztietan errebisatuko dira eta atal irakurketa-liburuaz ataletan **0 izango du**.

Ebaluazioa **gainditzeko 5** behar da.



Larraintzarko

IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

Lan bakar bat ez emateagatik suspendituko da. Ebaluazioan, gehienez ere, 4 izango du. Lanak berandu entregatuz gero, lorturiko kalifikazioaren %65a kontuan hartuko da. Orientatzailearen aholkuak entzunda, irakasleak eskubidea izango du hemen agertzen diren irizpideak aldatzeko, beti ere ikaslearen mesedetan bada.

5etik gorako notak biribiltzeko, hauxe izango da irizpidea:

- $5,5 \rightarrow 6 / 6,5 \rightarrow 7 / 7,5 \rightarrow 8 / 8,5 \rightarrow 9 / 9,5 \rightarrow 10$
- $5 \leftarrow 5,4 / 6 \leftarrow 6,4 / 7 \leftarrow 7,4 / 8 \leftarrow 8,4 / 9 \leftarrow 9,4$

Kopiatzea: Azterketa edo lan batean kopiatzeak edo kopiatzen uzteak, froga horretan 0 ateratzea suposatuko du eta ebaluazioan gehienez 4 bat.

Akatsak: Idazlanetan zein ahozko aurkezpenetan ez ezik, **azterketetan ere** kontuan hartuko dira **akats ortografiko eta gramatikalak**. Akats **larri** bakoitzeko **0,2** jaitziko da nota, eta akats **arin** bakoitzeko **0,1**. Kenketa horrek muga izango du, puntu 1 lehen zikloan eta 2 puntu bigarrean. Hauek dira akats larritzat hartuko direnetako batzuk:

- | | | |
|-----------------------------|-----------------|------------------------|
| -Ergatiboa | -Mugagabea | -Komunztadura |
| -Konpletiboak/erlatibozkoak | -Zehar galderak | -Hipotetikoa |
| -Puntuazioa | -Deklinabidea | -Oinarrizko ortografia |
| -Esaldiaren ordena -... | | |

3.- Azken nota

Azken nota hiru ebaluazioetako noten **batezbesteko haztatua** izango da. Ebaluazio bakoitzaren pisua hauxe izango da:

1. ebaluazioa: %25
2. ebaluazioa: %35
3. ebaluazioa: %40

Ikasleren batek ebaluazio bat eta dagokion errekupeazioa suspenditzen badu, notarik altuena kontuan hartuko da.

Bataz bestekoa ateratzeko ez da ebaluzioetan gutxieneko notarik eskatuko.

Irakasgaia **gainditzeko 5** behar da azken ebaluazioko batezbestekoan. **Bestela**, **kurtso osoko azterketa** egin beharko da **ekaineko ohiko deialdian**. Ekaineko ohiko deialdi honetako gehienezko nota 6 izango da.

Ekaineko ohiko deialdira joan bada eta suspenditzen badu, ekaineko ez-ohiko azterketara joango da, eta gehienezko nota 5 izango da.

BERRESKURAPEN SISTEMA

1.- Errekuperazioak

1. eta 2. ebaluazioek errekupeazioa izango dute, eta 3. ebaluazioaren errekupeazioa ohiko deialdian egingo da.


Behar dituztenei errefortzuzko ariketak emango zaizkie, baita ez-ohiko deialdirako ere.

Errekuperatzeko

azterketak eta lanak eskatu ahal zaizkie ikasleei.

2.- Errekuperazio jarduerak. Aurreko mailtako gainditu gabeak

Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaia suspenditu baina mailan aurrera egin duten ikasleek delako ikasgaia errekupeatuko dute baldin eta ondoko mailan lehenengo eta bigarren ebaluaketak gainditzen badituzte. Bestela apirila aldean jarriko den azterketa egin eta gainditu beharko dute. Dena den, udako oporretarako fitxak emango zaizkie bete ditzaten.



Larraintzarko
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna

Baliabideak:

- Irakurketa liburuak.
- Eragin, Euskara eta Literatura, DBH 3, Zubia-Santillana, Egiten Jakin proiektua
- <http://docentes.educacion.navarra.es/fmorenot/> webgunea
- Softwarea (Google Drive, Google Docs, Youtube...) aldizkaria egiteko.

Metodologia :

- Eraikitzailea
- kooperatiboa

Aniztasuna:

- Errefortzu ariketak eta lanak

Oharra: programazio laburtu hau kurtsoan zehar sortutako beharretara egokitzeko malgua izanen da.

Sinadura
Amaia Goienetxe

Larraintzarren, 2019ko irailaren 6ean.